

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### Jendaurrean eta kobratzeko moduan jartzea abeltzaintza, luberritze eta okupazio kanona

Egin dira errolda hauek:

- Abeltzaintzako kanona, 2020ko basogintza urtea.
- Luberri eta okupazioen errolda, 2020ko basogintza urtea.

Errolda horiek jendaurrean jartzen dira, interesdunek aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko abuztuaren 1etik azaroaren 31ra.

B) Premiamendu epea: 2020ko abenduaren 1etik aurrera, premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiko da, eta bidezkoa den errekargua aplikatuko da (Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek udal bulegoetan ordaindu ahal izango dute, kreditu txartelarekin, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabank, Laboral Kutxa eta Caixan dituen kontuetakoren batean.

III. Gomendioak:

Nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Zigoitiko Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ondategi, 2020ko ekainaren 22a

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*